

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren 3541/2021 Ebazpena, irailaren 6koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiko sailek hainbat erakunde eta elkarterekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenen laburpenak argitaratzeko

Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetzaren hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoak; Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikulua, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuak.

Aintzat izanda lehen aipatutako lege manuak eta aplikatu beharrekoak, eta baliatuz Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 102. artikulua eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren paragrafoaren arabera dagozkidan eskumenak, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetzaren hitzarmen hauek:

Izenpetze eguna: 2021eko maiatzaren 12a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Josean Galera Carrillo, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu titularra.

Bestetik: Julen Ibarrola Gobantes Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoko lehendakaria.

Eta bestetik: Joseba Vivanco Retes, Artziniegako Udaleko alkatea.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren eta Artziniegako Udalaren arteko lankidetzarako oinarriak ezartzea, Artziniegako udalerrian dagoen edateko ur andela eraisteko eta "Artziniegako ur andel berriaren proiektuaren" arabera berri bat eraikitze lanak egiteko.

Finantzaketa: Arabako Foru Aldundiak 407.004,96 euro.

Indarraldia: bat dator aipatutako obren berme epearekin. Gehienez 4 urte.

Luzapena: 4 urte gehiago.

Izenpetze eguna: 2021eko maiatzaren 18a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatu titularra eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Juan Muñoz Bartolomé, Armiñongo Udaleko alkatea.

Bestetik: Juan Mario Perea Anuncibay, Berantevillako Udaleko alkatea.

Bestetik: Aitor Abecia Jiménez, Zambranako Udaleko alkatea.

Bestetik: Miren Josebe Santamaría Martínez, Erriberabeitiko Udaleko alkatea.

Eta bestetik: Javier Gallego Rodríguez, Erriberagotiko Udaleko alkatea.

Hitzarmenaren xedea: Oinarrizko gizarte zerbitzuak ematea.

Finantzaketa: 49.360,00 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Izenpetze eguna: 2021eko maiatzaren 18a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko titularra.

Bestetik: Gorka Urtaran Aguirre, Gasteizko Udaleko alkatea.

Eta bestetik: Esther Ruiz de Arbuló Pérez de Arenaza, "Arabako Gorrak" Arabako pertsona gorren elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Keinu hizkuntzaren interprete zerbitzua ematea, Arabako entzumen urritasuna duten pertsonen gizarte eta eguneroko bizitzan parte hartze aktiboa izango dutela bermatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan.

Finantzaketa: 27.990,00 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Izenpetze eguna: 2021eko ekainaren 3a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Josean Galera Carrillo, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua.

Bestetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua.

Eta bestetik: José Ignacio Eguizabal Escribano, Diocesanak-Jesus Obrero Fundazioari dagokion EGIBIDE ikastetxeko zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea: Hondakinei buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egitea, adimen desgaitasuna duten pertsonen garatua.

Finantzaketa: Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak, 50.000 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Izenpetze eguna: 2021eko ekainaren 23a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: María Blanca de la Peña Bernal, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatua.

Bestetik: Luis María Fernández de Mendía Ruiz de Garibay, Argandoñako Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria.

Bestetik: Maria Yolanda Granja Cimavilla, Villafrancako Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria.

Bestetik: Ignacio Quintana Álvarez de Arcaya, Zerioko Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria.

Bestetik: Miguel Ángel Álvarez de Arcaya Fernández de Liger, Andolluko Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria.

Eta bestetik: María Begoña Acebedo Morante, Trokonizko Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eta Argandoña, Villafranca, Zerio, Andollu eta Trokonizko administrazio batzarren arteko lankidetzaz hitzarmena, errepide bidezko lurreko garraioaren ikuskaritza zerbitzuek Argandoñan kokatuta dagoen baskula erabiltzeko.

Finantzaketa: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila: Gehieneko zenbatekoak, batera edo banaka, ez du gaindituko urte natural bakoitzeko 6.000,00 euroko zenbatekoa, BEZa barne.

Indarraldia: lau urteko indarraldia izango du.

Luzapena: 4 urte gehiago.

Izenpetze eguna: 2021eko ekainaren 25a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Alfonso Antúnez Miguélez, Montes Solidarios Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Montes Solidarios Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Montes Solidarios elkarteari 31.570 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Izenpetze eguna: 2021eko ekainaren 29a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Blanca Bastida Torres, HIESaren aurkako Arabako Herritarren Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Lurralde Historikoan gizarteratzeko egoitza zerbitzuak kudeatzea.

Finantzaketa: 328.133,00 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: luzapena adostu ahal izango da, gehienez ere 4 urterako.

Izenpetze eguna: 2021eko uztailaren 1a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Josean Galera Carrillo, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua.

Bestetik: Pilar García de Salazar Olano, Araba Garapen Agentzia SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren eta Araba Garapen Agentziaren arteko lankidetzarako oinarriak ezartzea, Goian eta Agurain-Galzar industrialdeetako hondakin uren araztegiaren ustiapena, kontserbazioa eta mantentzea adosteko eta arautzeko, Urbinako ponpaketarekin batera.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: beste urtebete.

Izenpetze eguna: 2021eko uztailaren 30a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: María de Simón Baranda, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkartearen lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Finantzaketa: Arabako Foru Aldundiak 132.250 euroko dirulaguntza emango dio Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkarteari, Arabako Foru Aldundiak 2021eko ekitaldirako duen gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: Sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 6a

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria
ELENA FERREIRA SEBASTIÁN